

**Euskal Birusa  
Anaitasuna Ikastola  
Eskolabarri  
Kaltxango AEK Euskaltegia  
Udal Euskaltegia  
Anaitasuna Ikastola Institutoa  
Alboka Musika Eskola  
Deba Beheko Bertso Eskola  
Ermuko Udala**

HARTZAREN KOFLAK

The image shows a musical score for the song 'Hartzaren Koflak'. It consists of ten staves of music, with the first two staves being the vocal line and the remaining eight staves being the piano accompaniment. The score includes various musical notations such as notes, rests, and dynamic markings. The title 'HARTZAREN KOFLAK' is printed at the top left of the score.

**Ermuko  
ohitura zaharrak  
bultzatzen**  
Ermua, 2009ko negua.



**HARTZA  
EGUNA  
ERMUAN**  
(bertsoak eta istorioa)

## SARRERA

1990. urtean, Euskal Birusa Elkarte Kulturalak, bost hamarkadatan bere kobazuluan ezkutatuta egon zen **HARTZA** bere gordelekutik atera zuen.

*Hartza kalejiran, 1993an*



Harrez geroztik, Eguen Zuri biharamonean, **Karnabal barixakuan**, herriko baztarrak musika eta bertsoz betetzen dira, Hartza tartean doala.

*"Txindurriñeko" etxe azpian, 2002an*

2



*Hartza 1999an, kalerik-kale*



*Kateatuta eta gosetuta, 2004an*




*Umez inguratuta, 2003an*





*Ermua 1920an, Burduntzali basotik ikusita*

*Herria, gari-soloak nagusi ziren sasoietan,  
San Pelaiotik ikusita*



*"Ongarai" baserria, gaur  
eskolak diren lurretan,  
1945ean*

## BERTSOEN ISTORIOA

1934 urtea zen. Herriko gazte bat tuberkulosiarekin gaixotu zen; orduko denporetan gaixotasun larria zen, zainketa zein botika bereziak behar zituen. Haren senitartekoen egoerari aurre ezin ziotela egin ikusita, bere lagunek zozertan laguntzea erabaki zuten: **Gillermo Bengoetxearen** etxera joan, "**Gillermo Txindurri**" moduan ezagutzen zuten bertsolari harengana eta bertso bat idazteko eskatu zioten. "**Txindurrik**", Patxi Urkoren istorioa gogoratu eta harekin lotutako lau kopia idatzi zituen:

*" Patxi Urkoko etorri jakun..."*

*"Urko Goiko"  
1940an; Patxi,  
"Urko Azpiko"koa  
zen, gaur  
desagertuta*



*"...lehengo egunian esaten..."*

Gaztearen lagun koadrila osoa batu eta bertsuok buruz ikasi zituzten, gero kalerik-kale abesteko asmoz. Aratuste sasoa zenez, "koko janzte" pentsatu omen zuten: gaur eguneko berbekin mozorrotzea, disfrazatzea.

*Hartzaren  
lehen  
kalejiraren  
ondorengo  
kopautxoak,  
1934an*



Eta "koko janzteko" etxeko ganbara eta kuxa zaharretan begiratu behar: **arropa zaharren** bat soinean, kapelaren bat buruan, **margotu aurpegia** erretako kortxo zati batekin eta kitxo, kalera!

*"...animali bat han ebillela..."*

Ez zituzten ahaztu kitarra, bibolin, tronpeta, turuta eta kantu-paperak.

*"La  
la la  
lala  
lala  
la..."*

HARTZAREN KOPLAK

do-mi fa-m do-m

bertsoen arteko musika hori tarareatzeko, orrazi batzuk eta erretzeko papera erabili zuten: inkatu biak, putz egin eta orraziaren bitartietatik soinua ateratzea zen gauza. Eta holantxek, musika joaz eta "Txindurriren" bertsoak abestuz, herriko peora den-denetan **diru-eskean** ibili ziren. Diru dexente batu gainera: lekuko batzuk gogoratzen dutenez, 1.000 pzta. (6€) inguru. Orduko denporetarako **dirutza** itzela, kontutan hartu ezkerro Ermua 1.100 biztanlera ez zela ailegatzeko. Pzta. bana biztanleko, ez da gutxi!

## BERTSOEN EGILEA



*Guillermo Bengoetxea Izagirre,  
"Txindurri". Geltoki biderako*

*Izelaieta kaleko 8an jaio zen, "Txindurriñeko" etxean. Bere ama oso langilea zenez, txindurriak besteko fina, gatzizen hori jarri zioten eta belaunaldiz-belaunaldi haren ondorengo guztiei pasatu da Ermuko dantza talde batek "Txindurri" ezizen hori hartu zuen Gillermoren omenez..*

res. (Firma del Subsidiado.)  
*J. Bengoetxea*

Guillermo Bengoetxea 1878ko otsailaren 10ean jaio zen. Ideologia jeltzaleko "Euzkadi" egunkarian Ermuko korrespontsala zen, euskara eder eta jasoan herriko gertaera sozial zein politikoen berri emanaz.

Gure artean baina, bere bertsozaletasunak egin du ezagun. Azoketan saltzen ziren kantu-paperak erosi eta buruz ikasteaz gain, gustoko zuen berak asmatutakoak papereratzea eta bertsoak egiteko enkarguei erantzutea: bereak dira "Neure alaban seme", "Egun batian oldoztu jakun" "Elorrixotik etorri jakun", "Babia saltzen"... Plazara ere irteerakoa da bertso-kantatzen. 1902an Luzia Isasi-Isasmendi ermuarrarekin ezkondu zen. 1936ko gerratearen ondorioz, bere pentsaeragatik hiru urtez preso egon zen, 60 urtetik gorakoan espetxe baten. Armeroa zen eta Eusko Trenbideen Konpainian egiten zuen lana. 88 urterekin hil zen, neumoniak jota.

"Drogetenitturri", 132.2006ko otsaila

1

Patxi Urkoko etorri jakun  
lehengo egunian esaten,  
animali bat han ebillela  
bazter guztiak apurtutzen;  
eskopetekin hara juateko  
prizti hori harrapatzen,  
inguru hartako baserritarrak  
ez ebela lorik egiten.  
Hara juan giñen aldrea ederra,  
zer ote zan hori ikusten!  
La la la la lara la la la...

2

Baso Baltz eta Urko erreka  
sastrak genduzan jorratu,  
baiña guk ezin izan genduan  
animalirik bilatu;  
soiñeko arropak apurtu arte  
aurrera genduan jarraitu.  
Non uste dozu, adiskidia,  
egin genduala aurkitu?  
Mañako lezan sartuta euan,  
hantxe egin genduan hartu!  
La la la la lara la la la...

## HARTZAREN BERTSOAK

3

Animali hau ez dakigula  
dan hartza ala basurdea,  
basamortuan honek pasau dau  
egarria eta gosia;  
begiratuta beronek dauka  
errukarrizko plantia,  
beroni jaten emotiarren  
eskatzen dogu limosnia.  
Erruki zaitetz jende txit ona,  
kendu daiogun gosia!

4

Animali hau atxiki bat da  
guk diru pixkat batzeko,  
horren kontura gaur arratsian  
jan da edan ondo egiteko;  
borondaterik baldin badozu  
jendiak guri emateko,  
zure nagiak atara eizuz  
dozuzen sosak askatzeko.  
Poltsa hau bete bagoaz eta  
heldu da ordua afaltzeko!  
La la la la lara la la la...

5

*Maria Txindurri-ri eskerrak*  
gabiltza denok kantuan,  
bere aitatzok egin ebazan  
bertsuak doguz goguan;  
nahiz ta urtiak pasatu diran  
haizeak ez dauz eruan,  
horretarako denok batera  
hasi gaitzen ba kantuan.  
Ia ganoraz ospatzen dogun  
Hartza Eguna Ermuan!  
La la la la lara la la la...

6

Honenbestian amaitutzen da  
aurtengo gure ekiña,  
ahotsa ere urratu samar  
danok daukagu, jakiña!  
Hurrengo baten egin beharko  
dogu berriz be ahalegiña,  
ia urtero ez dan izaten  
jende kopuru bardiña.  
Ohitura zahar hau desagertzia  
litzake penarik haundiña!  
La la la la lara la la la...

## GURE ZUBIA

Maria Bengoetxea Isasi-Isasmendi, Gillermoren alaba, izan zen bertso hauek gaztetan buruz ikasi eta guregana iristea ahalbidetu duena.

*Maria, "Txindurrineko" bere etxeko balkoian, Hartzari begira, 2002an*



*Korrika 11.aren lekukoa  
Zubiaurren pozarren  
hartzen, 1999an*

12



Maria Bengoetxea, "*Maria Txindurri*" 1906ko azaroaren 1ean jaio zen, hau ere "*Txindurrine*"ko etxean. Entretenitze errazeko umea zen; zazpi urterekin puntua egiten zekien eta, hura eskuetan, aita bertsolariaren ipuin eta kantuak entzutea maite zuen ezer baino gehiago. Jose Mari Areitioaurtenarekin ezkondu eta lau alaba izan zituzten. Bere etxe azpian elektrizitate kontuetako denda bat zuen eta saltoki baino biltoki zen, lagun asko joaten zitzaizkiolako bisitan. Andrazko berbalduna, kontulari aparta, esaten diharduenaren haria kostata galtzen duen hoietakoa eta bere kontakizuna kantu, ipuin edo bertsoen batekin aberasteko abilezia zeukana. Euban hil zen, 2006ko urriaren 5ean, 100 urte betetzear. Gerrate aurreko bizimoduaren berriemaile esanguratsuenetakoa izanik irratian, prentsan, telebistan... orduko Ermuaren bere bizipenak sarri ikusi dute argia.

*"Drogetenitturri", 139. 2006ko azaroa.*

13

## ERMUA TXIKITAN

Gurea 1934. urtean, **herri koxkor** bat besterik ez zen, 1.000 biztanle pasatxorekin, 14 baserri eta laupabost kale. Eskola bakarra, frontoi bi eta peora bakoitzean tailartxo bat. Herri osoa **jolastoki erraldoi** bat zen, umek edonon olgatzeko aukera zuten: errepidean, peoretan,



frutarbola artean... Lurra lau-laua ez bazen ere, **soka-saltoan** egiten zuten, harri eta intxaurrekin **"potxilika"**, makillekin **"txirikiletan"**, tortolosekin **"aponetara"**, bedartxoekin **"afariketan"**... Pertsona helduek, umeen modura jolastu ez arren, ahalegintzen ziren ondo pasatzen **mendira** joanez, lagun aldran **abestuz**, frontoian **"barrus"** etara jokatuz, aratusteetan **mozorrotuz**, igandero plazan **bailabliak** dantzatzuz... Gaur eta orduan, antzerako-paresido ezta?

## LUR AZPIKO ERMUA

*Kobazulo ugari daude Ermu inguruan*



Geologikoki, Ermuko harria **kareharria** da, baina ez guztiz

garbia, ze beronekin batera **buztina eta lohia** ere metatzen dira. **Ura** sartzen denean, kareari eragiten dio, deseginaraziz; honekin metatuta dauden beste harri bigunagoak desegitera jotzen dute, **kobazuloak** sortuz. Han-hemenka, gure mendietan barrena kobak, leizeak eta zuloak badira, sarri larra eta sastrakaz erdi estalirik. Ermua, Mallabia edo Zaldibarko esparruan izan, gertu ditugu **Mañe, Mundio, Errekalde, Artarregi, Okillo, Munikola** eta Albizuri.



## HARTZAREN EZAUGARRIAK

Hartza, ibilera baldar eta makaleko plantigradoa, bakarzalea da eta banaka edo talde txikietan ibiltzezalea. Esparru ezagunean mugitzea gustatzen zaio eta ez da erasotzailea, mehatxatua sentitzen ez bada behintzat. Gehienak orojaleak dira, baina landareak jaten dituzte batez ere. Negua lo sakonean murgilduta eman arren, **negualdia** etetzen dute beraien hartzatxoak ernaldu eta titia emateko.



*Edateko, ura;  
lastotxoarekin  
bada, hobe!  
2004.*


## HARTZA ETA GIZAKIA

Mundu osoan oso hedatuta daude **gizakia eta hartza** lotzen dituzten ipuin eta kontakizunak. Beharbada erlazio horren "arrazoia", bien arteko traza fisikoan topa daiteke :

*Orojalea bai, umejalea ez.2002.*



- biak **zutundu** eta hanka biren artean ibil daitezke
- bien oinazpia antzekoa da, **plantigradoak** diren aldetik
- biak **iletsuak** dira (edo izan ziren sasoi batean)
- garai batean biek beharko zituzten **kobazuloak** eta hori liskarbidea gerta zitekeen



## BATZAILEA

Euskal Birusa Elkarte Kulturala izan zen Hartzaren bertsoak berreskuratu zituen. 1989. urtean sortua, euskararen erabilera modu gozagarri batez bultzatzea du helburu. Berak sustatu eta antolatutakoak dira: "Juanita Ibaibarriaga" literatur lehiaketa, "Drogetenitturri" herri aldizkaria, Liburu eta Disko Azoka, "Berbatruk" merkataritza hitzarmena, Ahozko Ondarearen bilketa, "Ermuan kantuan" liburua eta kantujira, Udako Postal lehiaketa eta San Martin Azoka. Horiez gain, herriko beste talde batzuekin elkarlanean: "Berbetan" jardunaldiak, "Berbalagun" mintza taldeak eta Hartza Eguna bera.

Deba Beheko Bertso Eskolak sortutakoak dira koplaren azken bi ahapaldiak, Guillermo Bengoetxea egileari eta bere alaba Mariari kantu bidez eskerrak emateko propio idatzitakoak.